


Borondatezko haurdunaldi-etenduren kopuruak gora egin du gazteengan, 2009tik 2010era

Haurdunaldia borondatez eten zuten 15 eta 29 urte bitarteko hamar neskatatik zazpi ez ziren osasun-zentroetara joan antisorgailuak erabiltzeko.

Gazteen Euskal Behatokiak haurdunaldiaren borondatezko etendurei (aurrerantzean, HBEak) buruzko datuak eguneratu berri ditu bere Adierazleen Sisteman. Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren mendeko Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzak eskaini ditu datuok.

Datu horiek diotenez, 15 eta 29 urte bitarteko emakumeei egindako HBEen kopuruak behera egin zuen 2007tik 2009ra: 1.812tik 1.680ra, hain zuzen ere. 2010ean, ordea, gora egin zuen, 1.877ra; hartara, igoera %11koa izan da. 15 eta 19 urte bitarteko nesken artean, 290etik 355era igo da HBEen kopurua 2009tik 2010era (%18ko igoera); 656tik 718ra 20 eta 24 urte bitarteko artean (%9 gora); eta 734tik 804ra 25 eta 29 urte bitartekoengana (%8ko gorakada).

HBEen bilakaera 15 eta 29 urte bitarteko nesken artean, adin-taldeen arabera (zenbakia absolutuak)



	2003	2005	2007	2009	2010
15-19 urte	190	244	347	290	355
20-24 urte	447	575	706	656	718
25-29 urte	403	600	759	734	804
15-29 urte	1040	1419	1812	1680	1877

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritza.


2010eko 1.877 HBEtatik, gehienak —%43— 25 eta 29 urte bitartekoei egin zitzaizkien, %38 20 eta 24 urte bitartekoei eta %19 gazteenei.

15 eta 29 urte bitartekoei egindako HBEak 15 eta 44 urte bitarteko emakume guztiei egindakoentzat %56 dira. Balio horrek zertxobait behera egin du 2007tik, gazteei egindako HBEak guztira egindakoentzat %61 zirenetik, hain zuzen ere.

HBE tasak 1.000 emakumeko ere nabarmen igo dira 2003tik: 4,4tik 8,6ra igaro dira 15 eta 29 urte bitartekoengana; 6,5etik 14,3ra 20 eta 24 urte bitartekoengana; eta 4,6tik 12,0ra 25 eta 29 urte bitartekoengana.

15 eta 29 urte bitartekoengana, HBEen tasa globala 2010ean 11,8koa izan da adin-tarte horretako 1.000 emakumeko.

HBEen tasen bilakaera, adin-taldeen arabera (tasak, milako)



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritza.

Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzak Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurei buruz egin duen txostenaren arabera, HBEa gertatu baino aurreko bi urteetan emakume gazteenek jo dute gehien osasun-zentroetara antisorgailuak erabili edo kontrolatzeko.

Izatez, HBE bat jasan duten 15 eta 19 urte bitarteko nesketatik, %84k ez zuen osasun-zentroetara jo antisorgailuak erabiltzeko. 20 eta 24 urte bitartekoengana, balio horrek %70era egiten du behera eta 25 eta 29 urte bitartekoengana, aldiz, %68ra. Hartara, ezinbestekoa da neska gazteen sexu- eta erreprrodukzio-osasunaren sustapenean lan egiten jarraitzea.

[Interrupciones voluntarias del embarazo en la CAPV 2010](#) txosten osoa Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzaren webgunean eskuragarri dago.

Datuok Gazteen Euskal Behatokiaren [Adierazleen Sisteman](#) ere kontsulta daitezke.

Jarraí gaitzazu gizarte-sareetan!




Aumenta el número de interrupciones voluntarias del embarazo entre las jóvenes de la CAPV entre 2009 y 2010

Siete de cada diez chicas de 15 a 29 años que se sometieron a una interrupción del embarazo no habían acudido a centros sanitarios para la utilización de métodos anticonceptivos

El Observatorio Vasco de la Juventud ha actualizado recientemente los datos sobre interrupciones voluntarias del embarazo (en adelante IVEs) en su Sistema de Indicadores. Estos datos han sido proporcionados por la Dirección de Gestión del Conocimiento y Evaluación del Departamento de Sanidad y Consumo del Gobierno Vasco.

De esos datos se desprende que si bien entre 2007 y 2009 el número de IVEs a mujeres de 15 a 29 años descendió de 1812 a 1680, en 2010 ha aumentado hasta llegar a 1877, lo que supone un incremento del 11%. Entre las chicas de 15 a 19 años, han aumentado de 290 en 2009 a 355 en 2010 (18% de incremento); entre las chicas de 20 a 24 años de 656 en 2009 a 718 en 2010 (9% de incremento) y entre las de 25 a 29 años de 734 a 804 (8% de incremento).

Evolución de IVEs entre chicas de 15 a 29 años por grupos de edad (números absolutos)



	2003	2005	2007	2009	2010
15-19	190	244	347	290	355
20-24	447	575	706	656	718
25-29	403	600	759	734	804
15-29	1040	1419	1812	1680	1877

Fuente: Dirección de Gestión del Conocimiento y Evaluación del Departamento de Sanidad y Consumo del Gobierno Vasco


En 2010, del total de 1877 casos, la mayor parte (43%) se realizó entre chicas de 25 a 29 años, el 38% entre las de 20 a 24 años y sólo un 19% correspondió a las más jóvenes.

Las IVEs realizadas a las chicas de 15 a 29 años suponen el 56% de las realizadas al total de mujeres de 15 a 44 años. Este valor ha descendido ligeramente desde 2007, cuando las IVEs realizadas en chicas jóvenes suponían el 61% del total.

Las tasas de IVEs por cada 1000 mujeres jóvenes han aumentado considerablemente desde 2003; han pasado del 4,4 al 8,6 entre las chicas de 15 a 19 años, de 6,5 por cada 1000 mujeres de 20 a 24 años a 14,3 en y de 4,6 frente a 12,0 en las de 25 a 29 años.

La tasa global de IVEs entre las chicas de 15 a 29 años en 2010 es de 11,8 IVEs por cada 1000 mujeres de esa edad.

**Evolución de las tasas de IVEs por grupos de edad
(tasas por mil)**



Fuente: Dirección de Gestión del Conocimiento y Evaluación del Departamento de Sanidad y Consumo del Gobierno Vasco

Según el informe de la Dirección de Gestión del Conocimiento y Evaluación sobre Interrupciones Voluntarias del Embarazo, las mujeres más jóvenes son las que en menor medida han acudido a los servicios sanitarios para la utilización o control de métodos anticonceptivos en los dos años previos a la IVE.

De hecho, entre las chicas de 15 a 19 sometidas a una IVE el 84% no había acudido a centros sanitarios para la utilización de métodos anticonceptivos. Entre las de 20 a 24 años ese valor desciende hasta el 70% y entre las de 25 a 29 años al 68%. De ahí que siga siendo esencial trabajar en la promoción de la salud sexual y reproductiva de las chicas jóvenes.

El informe completo sobre [Interrupciones voluntarias del embarazo en la CAPV 2010](#) está disponible en la web de la Dirección de Gestión del Conocimiento y Evaluación del Departamento de Sanidad y Consumo del Gobierno Vasco.

Estos datos también pueden consultarse en el [Sistema de Indicadores](#) del Observatorio Vasco de la Juventud.

¡Síguenos en las redes sociales!

